



# Bezeroarekin harremanak

Find market aplikazioaren salmenta prozesuaren ezaugarri bereizgarritik abiatuz (gu produktua enpresa bati saltzen diogu, baina enpresen bezeroek erabiltzen dute), bi harreman maila antolatu beharko ditugu:

## -SUPERMERKATUEKIN:

Supermerkatuak gure app-aren produktuaren erosleak dira, baina aldi berean guk haien goraberekiko app-a aldatu behar dugu, (supermerkatuek produktuen kokapenean aldaketa bat egiten dutenean, gure enpresa supermerkatuara joango da, aplikazioan egin behar diren eguneraketak zehazteko) harreman kolaboratibo bat izango dugu. Hau da, etengabe kontaktuan egongo gara beraien, horretarako Eazako langile bat, gure enpresaren eta beraien supermerkatuaren arteko elkarrizketan arduradun izendatuko dugu, beti pertsona berdina egongo da kontaktuan. Honekin gure langileak ondo ezagutuko du supermerkatu kolaboratzailea, eta supermerkatu bakoitzean aldaketa bat dagoenean errazago izango da APPan aktualizazioak burutzea.

Guzti honetarako bi modu edukiko ditugu komunikatzeko:

-Korreoaz [izenaabizena@eazacoop.com](mailto:izenaabizena@eazacoop.com)



-Bulegoko telefono finkoa: 943 93 76 29, eta komertzial bakoitzaren enpresa mugikorra



## -FIND MARKET-APPan ERABILTZAILEEKIN (Supermerkatutako Bezeroekin)

Find Market-en bezeroak, supermerkatuetako bezeroak dira, hauek erabiltzen dutelako guk supermerkatuei saldutako aplikazioa.

Supermerkatuko bezeroekin normalean APParen erabiltzailearen, eta APParen egilearen artean egon ohi den harremana mantenduko dugu. Horretarako APP Store eta Play Store plataformetan erabiltzen den kalifikazio sistema erabiliko dugu, gure bezeroek APPa balora dezaten. Horrez gain hilabetero inkestak ipiniko ditugu



app-an modu espezifikoan berriztapenak baloratzeko ( nahiz maiztasun hau aldatu daitekeen beharren arabera).

Bestetik ,egunerokoan sortu daitezken arazoei aurre egiteko, APPan bertan iradokizun atal bat ipiniko dugu, enpresako telefono (943 93 76 29), eta emailaren ondoan ([bezeroak@eazacoop.com](mailto:bezeroak@eazacoop.com)) eta konpromezua hartzen dugu 24h baino lehenago erantzugo dugula erabiltzaileen iradokizunak.